



**EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, "ID Arte" Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Eskola eta Diseinu Goi-mailako Eskolaren 2023-2024 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Eskola eta Diseinu Goi-mailako Eskolaren 2023-2024 ikasturterako eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

- 1.- Ikasturte berriaren hasierarekin zerikusirik daukaten betebeharrak guztiei, irailaren 1ean hasiera emango die Arte Eskola eta Diseinu Goi-mailako Eskolak.
- 2.- Irakas-jarduerak ezingo dira 2022ko irailaren 7a baino lehen hasi, ezta 2024ko ekainaren 21a baino beranduago bukatu ere.

Azken eskola-eguna eta ekainaren 28ra bitarteko epea ikasturteko azken azterketa ezberdinak, ikasturtea berrikusi eta ebaluatzeko lanak, programaketak, Urteko Txostenaren prestakuntza eta beharrezko diren eginkizun administratibo guztiak egiteko erabiliko da.

Uztailean zehar eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

- 3.- Ikasturte barruan ikasleekin iharduneko egun kopurua, gutxienez, 175ekoa izango da, hauetako 160, gutxienez, klase-egunak izango direlarik. 2023-2024 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna klase-eguntzat hartuko daiteke.

Eskolak bi lauhilekotan antolatu ahal izango dira: lehenengo lauhileko bukaeran azterketaldi bat izango da, ohiko deialdirako. Horrez gain, bigarren lauhilekoaren bukaeran gehigarritzko azterketaldia izango da ikasleek ebaluazio jarraituaren prozesuan gaintu ez dituzten irakasgaien ezohiko proba bat egin ahal izateko eta ikasketen amaierako lanak aurkesteko. Aipaturiko azterketaldiak (guztira, 15 egun baino gehiago, ez) ezin izango dira, inondik inora ere, eskola jarduera zuzeneko 160 egunetik deskontatuak izan.

Arte Plastiko eta Diseinuko Heziketa Zikloi dagokien egutegia ziklo bakoitzaren iraupena kontuan izanda egingo da. Beraz, ez da nahikoa izango gutxienez eskola emateko 160 egun ezartzea, baizik eta ikasle guztiei ziklo bakoitzari arau bidez dagozkion ordu guztiak ematea bermatu beharko da.

Lauhileko bakoitzean, aipaturiko 160 klase-egunak ezingo dira ikasturteko azken azterketak (ikasle ofizial, zein libreak izan daitezten) edo sarbide-probak egiteko erabili. Era berean, ezingo dira klaseak utzi ebaluaketa aldiak, gaintu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleentzako azterketak edota ebaluaketa-batzarrak edo klaustroak egiteko.

- 4.- Ezinbestekoz klase-egun gutxiago beteko balitz, berregokitu egin beharko da egutegia, 160 egunotara iritsi arte, beti ere langileen eskubideak betetzen direlarik.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo ikasle guztiak klasera ez joan, ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.





Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da. Dagokion Aginte-organoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere, ezin izango da jaiegun horietakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Ikastetxeak, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute haien zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

6.- Eguberritako oporraldiak 2023eko abenduaren 23tik 2024ko urtarrilaren 7ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2024ko martxoaren 28tik apirilaren 1era bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak egingo du, baina organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2023eko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo du, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkion argibideak jarraituz. Ikastetxeak aplikazio horretan ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko du. Organo horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

8.- Erabaki honek ezartzen duena nolabait aldatzeko, ontzat eman egin beharko du hezkuntza-ordezkaritzak. Zentroaren OOGek aurrez eta espresuki azalpen-eskabide baten bidez baiezko txostena eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari.

9.- Ikastetxeak, finkaturako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteizen,

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA  
Begoña Pedrosa Lobato